

**2020ko aurrekontuaren aldaketak, “Iruñeko berdeguneak mantendu eta zaintzeko” aurreko kontratuen gastuei aurre egiteko. Behin betiko onespena.**

Behin Udaleko Osoko Bilkurak, legezko den quorumarekin, bi mila eta hogeiko azaroaren 5ean egindako saioan hasiera batez onetsirik, eta jendaurreko epea inolako erreklamaziorik gabe iragan eta gero, behin betiko onetsi dira 2020ko aurrekontuaren aldaketak, “Iruñeko berdeguneak mantendu eta zaintzeko” aurreko kontratuen gastuei aurre egiteko, honako testu honekin bat:

Kreditu-transferentziak onestea, guztira 603.726,25 euroko zenbatekoaz, “Iruñeko berdeguneak mantendu eta zaintzeko” aurreko kontratuetatik datozen betebeharrei aurre egiteko, une honetan ez baitago horretarako kreditu egoki eta nahikorik, 2020ko aurrekontuan, gastuei aurre egiteko. Hona transferentzien xehetasunak (2020002731 kontabilitate-zerrenda):

Dok. zk.	Partida/kontzeptuaren deskribapena	Partida	€
MC-2020070936	Berdeguneak. Erabilera publikoko ondasunen mant. eta komp. Transferentzia positiboa Berdeguneetako betebeharrak asetzeko	41/17100/210080	603.726,25
RC-2020070937	Energia Agentzia. Ekarpena udal-sozietateei (Udal Operadore Energetikoa) Atxikipena transferentziarako.	40/17211/449000	60.000,00
RC-2020070937	Sanferminak. Festa-ekitaldiak. Atxikipena transferentziarako.	50/33800/226200	296.226,25
RC-2020070937	Sanferminak. Garbiketa- eta txukuntze-kontratuak (komun kimikoak) Atxikipena transferentziarako.	50/33800/227000	133.100,00
RC-2020070937	Herritarren Partaidetza. Transferentziak erakundeei. Atxikipena transferentziarako.	80/92430/482090	114.400,00
MC-2020070938	Energia Agentzia. Ekarpena udal-sozietateei (Udal Operadore Energetikoa) Transferentzia negatiboa.	40/17211/449000	-60.000,00
MC-2020070938	Sanferminak. Festa-ekitaldiak. Transferentzia negatiboa.	50/33800/226200	-296.226,25
MC-2020070938	Sanferminak. Garbiketa- eta txukuntze-kontratuak (komun kimikoak) Transferentzia negatiboa.	50/33800/227000	-133.100,00
MC-2020070938	Herritarren Partaidetza. Transferentziak erakundeei. Transferentzia negatiboa.	80/92430/482090	-114.400,00
<b>GUZTIRA (EUR)</b>			<b>603.726,25</b>

Aldaketa hauek ediktu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan hartuko dute indarra.

Iruñean, 2020ko abenduaren 15ean. Enrique Maya Miranda, Alkate Udalburua